

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3041

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 4koa, zeinen bidez Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko lurralde-ordezkarien esku uzten baitira zenbait gairi buruzko eskumenak.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduak (merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa arautzen du) Merkataritzako zuzendariari ematen dio programa horren arabera laguntza-eskabideak ebazteko eskumena.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduen bitartez, zenbait eskumen ematen zaizkio Merkataritzako zuzendariari (agindu horrek merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa arautzen du). Bada, administrazio-izapideak eraginkortasun handiagoz eta azkarrago egiteko, beharrezko ikusten da eskumen horiek eskuordetzea, hala aholkatzen baitute teknika- eta lurralde-arloko arazoiek.

Era horretan, administrazio-jardura gobernatzen duten ekonomia-, azkartasun- eta eraginkortasun-printzipioekin egokiago ezkontzen den laguntza-programaren kudeaketa erdietsi nahi da.

Ondorioz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko lurralde-ordezkarien esku uztea (bakoitzari dagokion lurralde-esparruaren barruan), merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduan Merkataritzako zuzendariari laguntza-eskabideak esleitzeko eman zaion eskumena.

Bigarrena.— Aipagai dugun arloari dagokionez, organo eskudun gisa Merkataritzako zuzendaria ezarritako jarraibide eta irizpideak eragotzi gabe egiten da eskuordetze hau.

Hirugarrena.— Eskuordetze honen bitartez ematen diren ebazpenek adierazi egin beharko dute zirkunstantzia hori, hain justu ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari argitalpen-eguna eta aipamen bat jasoz; eta, bestalde, Merkataritza Zuzendaritzak emandakotzat joko dira.

Aipatu ebazpenen aurka aurkeztutako administrazio-errekurtsoez arduratzea Merkataritza eta Kontsumoko sailburuordeari egokituko zaio, halaxe agintzen baita merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduen 12. artikuluan.

Laugarrena.— Merkataritza Zuzendaritzak edozein momentutan ezeztatu dezake eskuordetze hau, eta edozein espedienteren ardurak bereganatu dezake.

Bosgarrena.— Merkataritza eta Turismo sailburuordeak 2014ko ekitaldirako egindako deialdiei dagozkien espedienteak aplikatuko zaie eskuordetze hau, eta, ezeztatzen ez bada, hurrengo deialdiei ere aplikatuko zaie.

Seigarrena.— Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 4a.

Merkataritzako zuzendaria,
JON ANDONI ZARATE ZARRAGA.